

Abisalia

Hondoa baino hondorago

 Harkaitz Cano

Kanona apur bat behartuz, Sofokle-
ren *Edipo* jo ohi dute zenbaitek
mendebaldeko kulturako lehen
polizi-ikerketatik fikziotzat: zenbat bider ez
ote da errepikatu geroztik, errudunaren
bila urrunera joan eta erruduna norbera
dela, egia mingarri hori, jakiten duen giza-
kiaren historia? Ediporentzat, bere burua-
ri begiak erauztea ez da zehazki autoeza-
rritako zigorra, ikusmen lanbrotsu eta
faltsuari bizkarra eman eta bere burua
askatzeko modua baizik: begiei uko egi-
nik, bere erantzukizuna onartu eta bene-
tako jakinduria barrurantz begiratzean
datzala onartzen du horrela mitoak. Eta
barruan topatzen duguna ez da gure zen-
tzumenekin ohikoan ikusten, entzuten,
usaintzen eta ukitzen dugun hori bera.
Zerbait ustela eta erakargarria baizik.
Barrura begiratzeko leiho horiek zabal-

tzeko mito greziarra erabili zuen bere
modura Pasolinik *Edipo re* (1967) filmean,
eta antzeko zerbait –bitarteko arras ezber-
dinekin baina– egiten du Asier Serranok
ere *Abisalian*. Hondo hondora begiratu,
begirik gabe, sukar batean, hitzak sasta-
kai bezala erabiliz. Peio-tearekin bezala
literaturarekin. Edo literaturaren peio-
tearekin. “Nik ez diot izurik iluntasunari,
nik iluntasunean egon daitekeen zurita-
sunaren argitasunari diot izua”, gaztiga-
tzen digu pertsonaietako batek, liburu-
ko esaldi giltzarrietako batean.

Iluntasunaren baitan dagoen balizko
argitasun hori baita *Abisalia*, benetako
begia erauzi ondoren sortzen den –dugun-
begi artifiziala, errealitatea itxuragabe-
tzearen poderioz zenbaitetan ikusgarriago
eta aratzago agertzen diguna. Giza besoak
baino giza besoaren antza handiago duen

beso ortopedikoa. Krudelkeriaren xarma
agerian uzten duten istorio sorta txinpar-
tatsua da *Abisalia*. Liberazioa, deformazioa-
ren bitartez. Askapena, surrealismoaren
bitartez. Argitasuna, gehiegikeriaren bitar-
tez.

Kristalezko begi hori da *Abisalia*, baiki,
eta kristalezko mundu hori ere bai. *Citizen
Kane* filmeko esfera-erdi hura, baina Tod
Browningen *Freaks* filmeko protagonistek
astindua eta parpailadun alkandoraz jan-
tzitako David Lynch gotiko batek gainetik
koloreztatua. Koloreztatua baino gehiago:
ziprztindua. Daliren klon suerte batek
begien aurrean urtzen zaion bitartean fle-
matikoki deskribatzen digun paisaje eta
pertsonaia sail bizarroa aurkituko du ber-
tan irakurleak, bere erloju likido eta guzti.
Hain irrealak dira istorio eta gertaera ba-
tzuk, benetakoak ematen baitute, beldu-
rra eragiteraino.

Dekoratu ere ez da ziurra. Zaila da
Abisaliarentzat garai eta geografia jakin
bat irudikatzea, baina hondorik hondoe-
nean egonagatik, are hondorago erortze-
ko arriskua handia dela sentitzen dugu
etengabe. Iluntasunaren baitan dagoen
argi zirrintan erortzeko arriskua. Zaila
da, egia, *Abisaliarentzat* garai eta geografia
jakin bat irudikatzea, baina are zailagoa
barrokismoaren ertzak erakusten dizki-
gun gandu narratibo horren lilura liser-
gikoaren eraginpean ez erortzea.

Asier Serranoren ibilbidea jarraitu
duen orok daki asko zor diola haren pro-
sak poesiari. *Abisalia* ez da salbuespena.
Inoiz baino konta-teknika gehiago txer-
tatzen ditu, ordea, oraingoan: elkarrizke-
ta, gidoia, mikro-ipuina... Hipnosia era-
giten duten irudi ia *gore* eta, hala ere,
poetikoak; krudelkeria estetizatzeke joera;
errepikapen *mantra*; agertu eta desager-
tzen diren pertsonaia iheskorak; surrea-
lismoa gertaeretan eta izendegian (Luzio
Dalio Tango izena duen norbaitek, istorio
zirrargarriak behar ditu bere baitan gor-
deta, derrigor, ala?). Hori, jakina, bere
obra zeharkatzen duten bi kutxa gotor



ukaezinak ez aipatzeagatik: Lorelei eta hiri gorria, Asierren sor-marka izaki inoiz erabat agortu gabe azalberritzen direnak, bere literaturari tatuaien gisan itsasten zaizkion fetitxe atzemangaitzak. Lurralde miresgarri eta inoiz baino libreago batean murgilduaraziko du, ordea, oraingoan irakurlea, Asierrek: Jan Svankmajer edo Terry Gilliamnek egindako *Aliceren* bertsiogogoangarri bezain itogarri haien pareko giroetan ezkututzen baita hiri gorria. "Alice, B alde".

Hondoa baino hondorago dago *Abisalia*. Hondoa baino hondorago bere hizkuntza trinkoa. Bere trama gurutzatuak. Bere agintarien tirania. Bere pertsonaien lokamutsak ere, hondoa baino hondoragotik datozela dirudi eta ihes egiten diotela irakurlearen kontrolari. "Hau ezingo

nuke egunez pentsatu, baina lotan amestu bai, amestu nezake, horregatik da hain egiazko".

Erabil dezagun metafora maiztu hura berriz: bonboi kutxa bateko gozokiekin legetxe, ipuin bat dastatzeak hurrengo eskatuko dizu *Abisaliako* lurraldeetan ere, jakin arren gutxitan ezkututzen duela txokolate geruzak likoreen gozoa, eta gertagarriago izango dela zerrautsa, odola edo pozoia topatzea bertan... Izan ere, Asier Serrano beraren hitzetan esateko, "poza inozentzia une bat baino ez da. Erratu zarela ohartu arteko instant absurdoa". Inozentzia horri eutsi eta inozentzia hori berritzen dugu aldiro, ipuinez ipuin, azken akabu mikatzeraino. Koska egiteari utzi gabe. Hortzak estututa. Ahoko leherketa txiki horiekiko adikzioaren pean.*



martxo

liburu gomendatua

Asier Serrano Abisalia

Abisalia Asier Serranoren unibertso literarioan irla berri bat da. Euskal literaturan ez-leku berri bat. Idazle eibartarraren sor-marka diren eta bere literaturan inoiz erabat agortu gabe azalberritzen diren Loreleiren eta hiri gorriaren azken gordelekua. Pertsonaien ordoki abisaletara jais-teko, Serranok ipuinek beren baitan dituzten teknika guztiak erabiltzen ditu. Literaturaren pulstio poetikoari esker, indar handiko irudi estetikoak sortzen ditu, baina bere hitzen oihartzuna haratago doa: lur honetan edo lur honen sakonean baino are sakonago dagoen beste batean bizi garen gizakion bulkadez galdetzea du helburu.

"Unibertso berria ernalduko dugu izara azpian, Abisalia izenekoa, adibidez. Lurrikara etengabeak sortuko ditugu eta besarkadek aldiro eskatuko dute atsedean, baina ez gara osatzen dugun penintsulaz bereiziko".

Aldaketa
otsailaren
25a
baino lehen



0505030 TXALAPARTA

NARRATIBA

192 or.

Salneurria 17,00 €

Bazkideak 13,60 €

© Josu Margusino



EGILEA

Asier Serrano (Eibar, 1975). 1997an *Bada hiri gorri bat* argitaratu zuenetik, hainbat poema liburu argitaratu ditu: *Picassoren zaldia*, *Hiri gorritik* eta *Desertatuen piztiarioa*. 2001ean *Hoteleko kontuak* narrazio bilduma eta *Mari Basajaunaren eremuan* haurrentzako liburua argitaratu zituen. Horrez gain, bi eleberririk argitaratu ditu: *Eskuetan mapak* eta *Erlojugilea*. Literaturaz gain, musika munduan ere hainbat lan egindakoa da: Lorelei taldeko abeslaria eta letragilea da eta bakarka hainbat disko atera ditu, hala nola, *Ez esan inori*, *Hoteleko kontuak* eta *Gerrari bai*.